



HIRI ANTOLAMENDURAKO  
PLAN OROKORRA  
PLAN GENERAL DE  
ORDENACIÓN URBANA

**DURANGOKO HAPO-RAKO HASIERA  
BATEKO INKESTEN EMAITZA  
RESULTADO DE LAS ENCUESTAS  
PREVIAS PARA EL PGOU DE  
DURANGO**

Dokumentu hau Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Aurrerapen fasearen Herritarren Partaidetzarako Programaren (HPP) parte da.

Marina Blázquez Gonzálezek garatu du, Durangoko Udaleko Hirigintza Arloarekin koordinatuta.

Este documento forma parte del Programa de Participación Ciudadana (PPC) del Plan General de Ordenación Urbana de Durango para la fase de Avance.

Ha sido desarrollado por Marina Blázquez González en coordinación con el Área de Urbanismo del Ayuntamiento de Durango.



Marina Blázquez  
[www.marinablazquez.com](http://www.marinablazquez.com)  
[hola@marinablazquez.com](mailto:hola@marinablazquez.com)  
+34 647 246 506

# EDUKIAK / CONTENIDOS

AURREKARIAK / ANTECEDENTES

4

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA / PERFIL PARTICIPANTES

7

PARTE-HARTZEA AUZOKA / PARTICIPACIÓN POR BARRIOS

8

PARTE-HARTZEA HIZKUNTZAREN ARABERA / PARTICIPACIÓN SEGÚN IDIOMA

9

PLANAREN HELBURUAK / OBJETIVOS DEL PLAN

10

ETORKIZUNEAN DURANGO HORRELAKOA IZATEA GURAKO NUKE... / ME GUSTARÍA QUE EN EL FUTURO FUERA...

11

LEHENETSI BEHARREKO EKINTZAK / ACCIONES A PRIORIZAR

12

LANDA LURRAK / TERRITORIO RURAL

13

ETXEBIZITZA / VIVIENDA

14

EKIPAMENDUAK / EQUIPAMIENTOS

16

MUGIKORTASUNA / MOVILIDAD

17


ERANTZUN LIBREAK / RESPUESTAS LIBRES

18

ERANTZUN LIBREAK AUZOKA / RESPUESTAS LIBRES POR BARRIOS

26





# AURREKARIAK

Durangoko udalbatzak, 2019ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran, arau subsidiarioak berraztertzea eta Durangoko Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria (HAPO) idazten hasia onartu zuen. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aintzat hartuta, HAPO lantzen hasteko erabakiarekin batera, Herritarren Parte-hartze Programa egitea onartu zen (HPP), horrela, herritarrek beharrezko ezagutza eta esku-hartzea izan dezaten plangintza idazteko prozesuan.

**HPPren helburua informazio eta ezagutza gehiago lortzea izateaz gain, instituzioek, herriko eragileek eta bestelako parte-hartzaileek dauzkaten arazoak eta eskariak, iritziak, jarrerak eta Durangoren etorkizunari buruzko ikuspegia ezagutzea da.** Prozesua herriaren eta lurzorua antolamendurako baliagarria eta onuragarria izatea gura da. Horretarako, lanketa hiru arlotan egitea proposatu da:

- Erakundeen parte-hartzea
- Teknikarien parte-hartzea
- Herritarren parte-hartzea

Herritarren parte-hartze programak aurrerapen-faserako hainbat jardura planteatzen ditu, plana egiterakoan herritarren parte-hartzea sustatzeko; tartean dago udalaren web orriaren bidez inkesta orokor bat egitea.

Inkesta hori ikusgai egon da **<https://partehartu.durango.eus> orrian** 2020ko irailaren 7tik 2020ko urriaren 4ra, herritarrek modu irekian erantzun ahal izateko, eta inkestaren edukia udaleko bulego teknikoak proposatu du. Inkestaren edukia erraz ulertu eta erantzun ahal izateko ahalegina egin da.

Inkesta 117 pertsonen erantzun dute, eta dokumentu honetan jasotako erantzunen balorazioa eta laburpena egitea da asmoa.

Dokumentu hau bat dator HPPko herritarren parte-hartzea baloratzeko adierazitako lehen txosten partzialarekin.



# ANTECEDENTES

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 17 de julio de 2019, adoptó, el acuerdo para el inicio de la revisión de las normas subsidiarias y la formulación del nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Durango (PGOU en adelante). De acuerdo con la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo del País Vasco, junto al acuerdo de inicio de formulación del PGOU se aprobó el Programa de Participación Ciudadana (PPC en adelante) con el fin de favorecer el conocimiento e intervención de la población en el proceso de redacción del planeamiento.

**El PPC tiene como fin tanto el obtener información o conocimiento como detectar las problemáticas y demandas, las opiniones, las actitudes y la visión sobre el futuro de Durango que puedan aportar las instituciones, agentes de la ciudadanía particulares y otros entes participantes.** Se trata de que sea un proceso útil y beneficioso para el fin que se pretende con todo ello, que no es otro que la ordenación urbana y territorial del municipio. Así, se propone tres ámbitos diferentes:



- Participación institucional
- Participación técnica
- Participación ciudadana

El Programa de participación ciudadana para la fase de Avance plantea una serie de actuaciones para el fomento de la participación ciudadana en la consecución del Plan entre las que se encuentra el realizar una encuesta general a través de la Web del Ayuntamiento.

Esta encuesta ha estado disponible al público en la página **web <https://partehartu.durango.eus/>** desde el 7 de septiembre de 2020 hasta el 4 de octubre de 2020 para ser contestada de forma abierta y su contenido ha sido propuesto por la oficina técnica del Ayuntamiento buscando que el contenido de la misma sea de fácil acceso y comprensión.


Este documento busca recoger la valoración y síntesis de los resultados obtenidos en las mismas de un total de 117 personas que han participado de las mismas.

Este documento se corresponde con el primer informe parcial de valoración de la participación ciudadana indicada en el PPC.



**GUZTIRA 117  
PERTSONEK  
PARTE HARTU  
DUTE**

**HAN  
PARTICIPADO  
UN TOTAL DE 117  
PERSONAS**






Inkesta erantzun duten herritarren profila begiratu gero, **adinari dagokionez, gehien erantzun dutenak 25 eta 44 urte artekoak dira**, eta, ostean, 45 eta 64 urte artekoak.

Parte-hartze hori ikusita, ondoriozta daiteke lanketa berezi bat egiteko beharrezana egon daitekeela 24 urtetik beherakoek eta 65 urtetik gorakoek parte hartzea bultzatzeko. Batez ere kontuan izanda mendekotasun handiena edo ahulena izan dezaketen gizarte-taldeetako kideak direla.

Si atendemos al perfil de participantes en las encuestas según la edad, predomina el grupo de edad entre 25 y 44 años, seguido del grupo de 45 a 64 años.

Esta participación podría indicar la necesidad de realizar un enfoque específico para hacer partícipes a los grupos de edad menores de 24 años así como a los mayores de 65 años, máxime teniendo en cuenta que forman parte de los grupos sociales potencialmente más dependientes o vulnerables.



## PARTE-HARTZEA AUZOKA

Si nos fijamos en el perfil de participantes según el barrio de residencia, la representación en el Casco Viejo, San Roke / Aramotz, Zabalarra / Mikeldi, Madalena y Landako es bastante homogénea. Algo más baja es en el Centro y San Fausto, y destaca especialmente la baja o nula representación del entorno rural y Santi Kurutz / Juan Itziarko.

En futuras fases del proceso de participación ciudadana se podría hacer un llamamiento específico para los territorios del municipio que menos representación tienen en esta encuesta para tener una visión del municipio más homogénea en cuanto al contraste con ciudadanía.

Bizilekuari dagokionez, **nahiko parte- hartze homoginoa izan dute alde zaharreko, San Roke / Aramotzeko, Zabalarra / Mikeldiko Madalenako eta Landakoko bizilagunek.**

Parte-hartze txikiagoa izan da erdiguneko eta San Faustoko auzokideen artean. Nabarmendu behar da landa gunetako eta Santi Kurutz / Juan Itziarko auzoetakoek oso parte-hartze baxua izan dutela.

Herritarren parte-hartze prozesuko hurrengo faseetan deialdi berezia egin ahal da inkesta betetzerakoan gutxien parte hartu duten auzoetako herritarrek parte hartu dezaten, horrela, herritarren iritzia jasota herriko ikuspegi osoago bat izateko.

## PARTICIPACIÓN POR BARRIOS






# HIZKUNTZA IDIOMA

Galdetegia erantzuteko hizkuntzari dagokionez, **gaztelaniaz euskaraz baino galdetegi gehixeago bete dira, baina hizkuntza batean zein bestean antzerakoa izan da parte-hartzea**; hortaz, Durangon elebitasunak garrantzia berezia dauka.


En cuanto a la participación según el idioma utilizado, predomina ligeramente el castellano pero se puede considerar que la participación es equivalente en uno y otro idioma. El bilingüismo adquiere así especial relevancia en el municipio de Durango.



# HELBURUAK OBJETIVOS

Plan Orokorrak izan beharko lituzkeen helburuen artean, galdetegia erantzun duten herritarrek **hiru nabarmendu dituzte: lehenengoa, aisialdirako guneak berreskuratzea eta espazio berriak eskaintzea; bigarrena, herriko ekipamenduen arazoak konpontzeko beharrezakoa; eta hirugarrena, herriko jarduera ekonomikoa eta zerbitzuak bultzatzea**. Helburu horien ostean, garrantzizkotzat jo duten hurrengo helburua izan da etxebizitza- eta auzo-kalitate handia eskaintzea, periferiaren eta herrigunearen artean bizitegi-eredu orekatua lortzeko.

Entre los objetivos a los que debería orientarse el Plan General, tres son los aspectos que destacan en este sentido, en primer lugar, recuperar y ofrecer nuevas áreas de esparcimiento, en segundo lugar, la necesidad de solucionar los problemas de equipamientos en el municipio y en tercer lugar, potenciar la actividad económica y los servicios en el municipio. Ofrecer una alta calidad residencial y de barrios, logrando un modelo residencial equilibrado entre la periferia y el centro urbano sería la siguiente cuestión a tener en cuenta según el resultado de las encuestas.




# ETORKIZUNEAN DURANGO HORRELAKOA IZATEA GURAKO NUKE...

Durangoren etorkizuneko ikuspegiari dagokionez, **bi ideia nabarmendu dituzte galdetegian: Durango berdeago bat lortzea, jasangarritasunean eta ingurugiroaren errespetuan oinarritzen den herri bat izatea.** Garrantzia eman diote, baita ere, gazteentzako prezio eskuragarriak alokairuzko etxebizitzaren eskaintza egoteari eta herriko jarduera ekonomikoa zabaltzeari.

En cuanto a la visión para el futuro de Durango, dos son las ideas principales, un Durango más verde, basado en la sostenibilidad y respeto al medio ambiente. También tiene relevancia la oferta de vivienda en alquiler a precio asequible para la juventud o ampliar la actividad económica en el municipio.

## ME GUSTARÍA QUE EN EL FUTURO DURANGO FUERA...



## LEHENETSI BEHARREKO EKINTZAK

De las acciones a priorizar por parte del ayuntamiento, el plan de malla verde, el plan de movilidad sostenible y plan de ciclabilidad son los aspectos destacados, junto con la oferta de vivienda adaptada a la demanda real, la acomodación de los equipamientos públicos a la demanda y la rehabilitación de barrios.

Que el desarrollo de los suelos industriales sea el aspecto menos priorizado, hace pensar que con relación a la actividad económica, teniendo en cuenta la pregunta anterior, se priorizan otro tipo de actividades o ubicaciones para la actividad económica del municipio que no requieran desarrollo de suelos.

**Udalak lehenetsi beharreko ekintzen artean hauek nabarmendu dituzte herritarrek: sare-berdearen plana, mugikortasun jasangarriaren plana eta bizikleten plana. Horrez gain, egungo eskariari erantzuteko etxebizitza-eskaintza, ekipamendu publikoen egokitzapena eta auzoak eraberritzea ere azpimarratu dituzte.**

Inkesta erantzun dutenek lehenetsun gutxien lur industrialak garatzeari eman diote; horrek pentsarazten du jarduera ekonomikoetarako lehenetsuna ematen diotela lurzoruen garapenik behar ez duten bestelako jarduera edo kokapen batzuei.

## ACCIONES A PRIORIZAR



# LANDA LURRAK TERRITORIO RURAL

Landa lurrei dagokienez, gehien nabarmendu duten alderdia **natura-ingurunea bizitegi-presiotik eta izan ditzakeen mehatxuetatik babestea izanda**. Basoen kudeaketan, bertako espeziei lehentasuna ematea eta ingurune naturala kaltetzen duten espezie inbaditzaileen kontra egitea nabarmendu dute. Herriko nekazaritza eta abeltzaintza indartzeari ere eman diote garrantzia, eta, horrez gain, ingurune batzuk berregituratzeko premia ere nabarmendu dute, paisaian esanguratsuagoak diren espazioak sortzeko.

En cuanto al territorio rural, preservar el medio natural de la presión residencial y las amenazas que pudiera sufrir es el aspecto más destacado junto con una política forestal que priorice las especies autóctonas y descarte especies invasoras y degradadoras del medio natural y la potenciación de la actividad agrícola y ganadera en el municipio son los tres aspectos destacados seguidos por la necesidad de reestructurar algunas zonas para dar lugar a espacios más significativos paisajísticamente.



# ETXEBIZITZA VIVIENDA

Inkesta bete duten herritarren erantzunetan, oso parekoa izanda **Durangorako lehentasuna etxebizitzaren parkea berritu behar** dela uste duten pertsonen eta gaur egun dagoen etxebizitza-eskaintza egokia dela uste dutenen kopurua.

Erantzunak auzoaren arabera aztertuz gero, etxebizitza-eskaintza berritzeko beharra ikusten dute batez ere alde zaharreko, erdiguneko, San Roke / Aramotzeko Zabalarra / Mikeldiko eta San Faustoko bizilagunek.

Etxebizitza hutsak betetzeko beharizan handiagoa ikusten dute Landako, Santi Kurutz / Juan Itziarko eta Tabirako herritarrek.

Horrez gain, gaur egungo etxebizitzaren eskaintzari eusteko kezka ere badute herritarrek, batez ere San Fauston, Landakon eta Zabalarra / Mikeldin, eta gutxixeago Tabiran, Madalenen eta San Roke / Aramotzen.

Si analizamos el diagnóstico en cifras totales de las personas que han participado, se puede observar que las prioridades para el municipio de Durango según las respuestas recibidas es la de rehabilitar el parque de viviendas y en una proporción muy similar, se considera que el parque de viviendas actuales es adecuado.

Si analizamos las respuestas por cada uno de los barrios, se observa que en el Casco viejo, centro, San Roque / Aramotz, Zabalarra / Mikeldi y San Fausto, predomina la necesidad de rehabilitación. Porque Aramotz, San Fausto, Anboto (dentro de Zabalarra / Mikeldi) contienen los barrios obreros de los años 60, además de un parque inmobiliario antiguo.

En el caso de Landako, Santi Kurutz/Juan Itziarko, y Tabira, son los barrios en los que mayor preocupación hay por ocupar la vivienda vacía existente.

Destaca también la preocupación por mantener el parque de vivienda actual especialmente en San Fausto, Landako y Zabalarra / Mikeldi y en menor grado, en Tabira, Madalena y San Roke / Aramotz.



**GALDETEGIA BETE  
DUTEN HERRITARREN  
ERDIEK BAINO  
GEHIAGOK USTE DUTE  
EZ DELA BEHARREZKOA  
DURANGON ETXEBIZITZA  
GEHIAGO ERAIKITZEA,  
ETA PARTE-HARTZAILEEN  
% 25EK EZ DUTE GAI  
HONI BURUZKO IRITZIRIK  
ADIERAZI.**

**MAS DE LA MITAD DE  
LAS PERSONAS QUE  
HAN PARTICIPADO EN LA  
ENCUESTA CONSIDERA  
QUE NO ES NECESARIO  
LA CREACIÓN DE NUEVAS  
VIVIENDAS EN DURANGO  
Y MÁS DEL 25% DE LOS  
PARTICIPANTES NO  
TIENEN UNA OPINIÓN EN  
ESTE SENTIDO.**



# EKIPAMENDUAK EQUIPAMIENTOS

Ekipamendu premiei dagokienez, **azpimarratu dute, batez ere, aisialdiari lotutako ekipamendu falta dagoela herrian, eta ondoren, osasun, gizarte edo laguntza ekipamenduak behar direla ere adierazi dute.** Gauza bera esan dute landa-inguruneko ekipamenduei dagokienez.

Galdetegian jasotakoaren arabera, herritarren iritziz, kirol, hezkuntza eta administrazio arloko ekipamendu nahikoa dago herrian.

En cuanto a la necesidad de equipamientos destaca la opinión de insuficiencia de equipamientos especialmente de ocio, seguido de equipamientos sanitarios, sociales o asistenciales. Lo mismo se indica en cuanto a los equipamientos en el entorno rural.

La necesidad en cuanto a equipamientos deportivos, educativos y administrativos está bien cubierta según los resultados de las encuestas.





## MUGIKORTASUNA

Hay una demanda de más espacios ciclables y también de espacios peatonales, siendo la mayoría partidarios de reducir o limitar el uso del vehículo privado dentro del municipio, no sólo en el cuestionario sino también en las aportaciones libres al mismo.

Una gran mayoría considera que hay insuficiencia de aparcamiento en Durango y que existe la necesidad de más aparcamientos disuasorios en el municipio. Pese a lo anterior, se priorizan la zonas verdes de esparcimiento frente a la utilización de terrenos municipales en desuso para aumentar la oferta de aparcamiento. En los comentarios libres se propone la posibilidad de compatibilizar los aparcamientos subterráneos con zonas verdes en superficie.

Existe bastante consenso en cuanto a la necesidad de modificar el servicio de OTA para potenciar una mayor actividad comercial y que, considerando que Durango es un municipio de servicios, la OTA ha mejorado la disponibilidad de aparcamiento en la vía pública.

Queda claro que un gran número de personas considera necesario potenciar el uso del transporte público mejorando la intermodalidad entre autobús y el tren.


**Bizikletan ibiltzeko eta oinez ibiltzeko leku gehiago** eskatu dute galdetegia bete dutenek, eta gehienak herri barruan ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitu edo mugatzearen aldekoak dira; hori inkestako galderetan eta ekarpen libreetan ere agertu da.

**Gehiago handi batek uste du Durangon aparkaleku falta dagoela**, eta disuasioko aparkaleku gehiago behar direla herrian. Hala ere, erabili barik dauden udal lurretan **berdeguneak jartzea nahiago dute leku horietan aparkalekuak jartzea baino**. Iruzkina libreetan, lurpeko aparkalekuak eta lur gaineko berdeguneak bateratzeko aukera proposatu da.

Nahiko adostasun handia dago **TAO zerbitzua aldatzeko beharrari dagokionez, merkataritza-jarduera handitzeko**. Durango zerbitzuen herria denez, galdetegia bete dutenek uste dute TAOk eremu publikoan aparkatzeko aukerak hobetu dituela.

Argi dago jende askok beharrezkotzat jotzen duela **garraio publikoa bultzatzea, eta autobusaren eta trenaren arteko intermodalitatea hobetu behar** dela iritzi diote.

## MOVILIDAD



# ERANTZUN LIBREAK RESPUESTAS LIBRES

Jarraian, iruzkin libre gisa egin diren ekarpenak jasoko dira. **Argitu behar da egindako iruzkin asko ez datozela bat Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedearekin.**

HAPOren lan-esparrutik kanpo geratzen diren gaien artean, aipatzekoak dira TAOren kudeaketa, tokiko merkataritzaren sustapena, espazio publikoaren ohiko kudeaketa eta bizikidetzak (garbiketa, lorezaintza, txakurrentzako guneak, hiri-hondakinen bilketa, etab.). Alderdi horiek beste modu desberdin batean kudeatzen dira.

**Inkesten erantzun libreak honako gai hauetan taldekatu dira: mugikortasuna, garapen iraunkorra eta ingurumena, etxebizitza, jarduera ekonomikoa, ekipamendu eta zuzkidura publikoak, parte hartzeko mekanismoak eta beste batzuk.** Era berean, auzo bakoitzerako egindako ekarpenak multzokatu dira.


Ekarpen batzuetan, aipatzen dituzten eremuen interpretazioa egin da, eta horiei egindako interpretazioa argitzen duten oharrik gehitu dira.

A continuación, se recogen las diferentes aportaciones que se han realizado en forma de comentario libre. Cabe aclarar que muchos de los comentarios realizados no corresponden al objeto del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).

Entre los temas que quedan fuera del marco de trabajo del PGOU cabe señalar los relativos a la gestión de la OTA, promoción del comercio local, gestión y convivencia ordinaria en el espacio público (limpieza, jardinería, espacios para perros, recogida de residuos urbanos, etc) aspectos que se gestionan mediante otros mecanismos.

Las respuestas libres de las encuestas se han agrupado en los siguientes temas: movilidad, desarrollo sostenible y medio ambiente, vivienda, AAEE, equipamientos y dotaciones públicas, mecanismos de participación y otros. A su vez, se han agrupado las aportaciones realizadas para cada uno de los barrios.

En algunas de las aportaciones, se ha realizado la interpretación de los ámbitos a los que hacen referencia, y se añaden notas aclaratorias de la interpretación realizada a los mismos.



# MUGIKORTASUNA MOVILIDAD

**Mugikortasun iraunkorragoa, berdeagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa proposatzen da.** Bestalde, **pertsonak erdigunean jartzea** eta generoaren eta klasearen ikuspegia txertatzea ere nahi da, baita bide-hezkuntzako edukiak lantzea ere (horretarako azpiegitura bat sortuz edo udaltzainek motorizatu gabeko bitartekoak erabiliz). **Eskola-bide seguruak sortzeko beharra** ere ikusten da, haurrak ikastetxeetara bakarrik joan ahal izateko.

Motorrik gabeko mugikortasunaren alde egitea proposatzen da, eta **hirigunean autoaren erabilera mugatzea**. Horretarako, oinezkoei lehentasuna emango zaie herri barruko joan-etorriak erraztuko dituzten oinezkoentzako guneak eta paseatzeko berdeguneak sortuz. Ildo horretan, **kirola eta turismoa egiteko bideak eta bidexkak egokitu** behar direla ere adierazi da.

**Bizikletaren erabilera sustatzea eta bidegorriak osatzea** dira bizikletak bultzatzeko eta inguruko herrientzat bizikletaren erabilera erreferente bihurtzeko proposamenetako batzuk.

Beste ideia batzuk **trenaren trazatu zaharra bizikleta-errei bihurtzea eta udalerriaren eta inguruko industria-parkeen artean bizikleta-gerriko bat sortzea** dira. Gainera, aurrerago, lankidetzaren publiko-privatuarekin bultzatutako bizikleta elektrikoaren zerbitzu bat sortzea ere bada asmoa.

Halaber, beste ekarpen batean aipatzen da **erabilera bateragarritasuna** bizikleten eta autoen artean egin behar dela, oinezkoen espazioa errespetatuz.

Industrialdeetara eta azalera handietara iristeko, **puntako orduetan garraio publikoa sortzea** proposatzen da. Garraio publikoari dagokionez, **autobus-geltokia birmoldatzeko beharra** ere aipatzen da.

Ibilgailu pribatuko mugikortasunari dagokionez, **Durangoko ingurabidea amaitzeko beharra aipatu da**. Erdiguneko sarrera eta irteera ere berrikustea proposatzen da, **bi norabideetan bideak sortuz**.

Aparkalekuei dagokienez, **lurpeko aparkalekuen erabilera eta irekiera sustatu** nahi da. Aukerak horiek erabiltzeagatik urteko kuota bat ordaintzea edo aparkalekuak doanekoak izatea dira. Halaber, estalitako lurpeko aparkalekuak gune berdeekin konbinatzea proposatzen da, oinezkoentzako espazioen eta aparkalekuen arteko elkarbizitzarako.

TAOri dagokionez, garajerik ez dutenekiko kezka mahaigaineratu eta **autoa aparkatzeko egoiliarren guneak handitzea proposatu da**. Bestalde, TAO eremua handitzeko eskaria ere egin da.

Se propone una movilidad más sostenible, más verde, más accesible y segura. Se propone poner en el centro a las personas e incorporar la perspectiva de género y de clase, trabajar los contenidos de educación vial (incluso creando una infraestructura para ello o mediante la utilización de medios no motorizados por parte de los municipales) así como la necesidad de crear caminos escolares seguros que favorezcan que las niñas y niños puedan ir solos a los colegios.

Se propone favorecer la movilidad no motorizada y limitando el uso del coche en la zona urbana, priorizando a los peatones con zonas peatonales que favorezcan los desplazamientos dentro del pueblo y zonas verdes para paseo. En este sentido se señala también la necesidad de adecuar caminos y senderos para la práctica deportiva y el turismo.


Potenciar el uso de la bicicleta y completar los bidegorris son algunas de las propuestas para impulsar las bicicletas y convertirse en un referente para los pueblos de alrededor en el uso de la bicicleta. Entre las propuestas se propone la utilización del antiguo trazado del tren para la creación de un carril bici y un cinturón ciclable entre el municipio y los parques industriales cercanos, y más adelante potenciar un servicio de bicicleta eléctrica impulsado con una colaboración público-privada. Señalar también que se hace referencia en otro comentario que la compatibilización de usos debe darse entre bicicletas y coches liberando así el espacio peatonal.

Para la comunicación con los polígonos industriales y grandes superficies se propone la creación de un transporte público en horas punta. En cuanto al transporte público, también se señala la necesidad de remodelar la estación de autobús.

En cuanto a la movilidad en vehículo privado se señala la necesidad de **terminar la circunvalación de Durango**. Se propone revisar también la entrada y salida de la zona central creando vías en ambas direcciones.

En cuanto al aparcamiento, se propone fomentar el uso y la apertura de los aparcamientos subterráneos existentes creando una cuota anual por el uso de los mismos o incluso de manera gratuita. Se propone también la combinación de aparcamientos subterráneos cubiertos con zonas verdes para la convivencia entre los espacios peatonales y aparcamiento.

En cuanto a la OTA, se muestra preocupación por quienes no disponen de garaje y se plantea el ampliar las zonas de residentes en las que poder estacionar el coche. También se solicita ampliar la zona de OTA.



# GARAPEN IRAUNKORRA ETA INGURUMENA

## DESARROLLO SOSTENIBLE Y MEDIO AMBIENTE

**Garapen jasagarria bultzatzea** proposatzen da, 2030 estrategian ezarritako helburuak kontuan hartuta, klima-krisiari ahal den neurrian erantzuteko. **Mugikortasun-kontuez gain, kutsadura akustikoa murriztea eta Durangoko airearen kalitatea hobetzea ere espero da, uholde-arriskua murriztuz eta ibaien garbiketa eta mantentzea hobetuz.**

Horrez gain, oinez ibiltzeko **berdegune eta bidezidor gehiago** behar direla aipatu da, baita **herritarrek herrian laborantza ekologikorako guneak** izateko interesa erakutsi ere.

Hiri-hondakinen bilketari eta kudeaketari dagokienez, krisi klimatikoaren adierazpena kontuan hartuta, hondakinak sortzeagatik kobrantzara pasatzea proposatzen da. Helburua horien murrizketari lehentasuna ematea da, bai eta etxeetako konpulsio organikoaren sailkapenari ere.

Entre las propuestas se plantea impulsar el desarrollo sostenible teniendo en cuenta los objetivos marcados en la estrategia 2030 para dar respuesta en la medida de lo posible a la crisis climática, atendiendo no sólo cuestiones de movilidad, también buscar la reducción de contaminación acústica, mejorar la calidad del aire de Durango, reduciendo el riesgo de inundación y mejorando la limpieza y mantenimiento de los ríos.

Se menciona la necesidad de más espacios verdes y senderos por los que caminar y el interés de que haya espacios para la ciudadanía para cultivo ecológico en el pueblo.

En cuanto a la recogida y gestión de residuos urbanos, atendiendo a la declaración de crisis climática, se propone pasar al cobro por generación de residuos y primar la reducción de los mismos, así como la clasificación de la compulsión orgánica en los hogares.




# ETXEBIZITZA VIVIENDA

Komentarioetako askok Durangon etxebizitza berririk ez eraikitzeke eskatu dute, **etxebizitza hutsak alokairuan jar daitezten**. Beste alde batetik, eraikin zaharrak **birgaitzea** ere proposatu dute, **etxebizitza berriak eraiki beharrean**.

Hirigintzan **genero-ikuspegia** kontuan hartzea proposatzen da balizko **eraikuntza-tipologiak** kontsideratzerakoan. Ildo berean, adinekoen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen **irisgarritasuna erraztuko duten etxebizitzaren beharra ere aipatzen da. Gainera, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak ardua sortzen du.**

Muchos de los comentarios piden que no se construyan nuevas viviendas en Durango, para favorecer que las viviendas vacías se pongan en alquiler y se propone también la rehabilitación de edificios antiguos existentes frente a la nueva construcción.

Se propone que se tenga en cuenta la perspectiva de género en el urbanismo a la hora de considerar las posibles tipologías edificatorias. En este sentido se menciona también la necesidad de viviendas que favorezcan la accesibilidad para las personas mayores o con diversidad funcional. Inquieta también el acceso a la vivienda para los jóvenes.



# JARDUERA EKONOMIKOAK

## ACTIVIDADES ECONÓMICAS

Jarduera ekonomikoari dagokionez, Durangoko merkataritza-garapena bultzatu behar da, hirigintza-egokitzapenean oinarrituta. Elikadura subiranotasuna kontuan hartu beharreko gaia izan behar dela planteatzen da, baita nekazarien eta herritarren arteko zubiak indartu eta eraikitzeke beharra ere. Horrekin lotuta, **merkatu plaza bultzatzeko premia ere aipatu da, Durangoko motor ekonomiko bihurtu dadin.**

Jarduera ekonomikoen tipologiari dagokionez, planteatzen da ingurumena kontuan hartzen duten **merkataritza-ekimenak sustatu beharko liratekeela. Modu berean, zerbitzuen sektoreari lagundu beharko litzaiokeela eta tokikoa sustatzeko kanpaineekin jarraitu beharko litzatekeela uste da, azalera handietarako bidea saihestuz.**

Mahaigaineratutako beste lan-ildoetako bat **Durango turismo aldetik hobeto garatuta egotea** da; horretarako, kirola eta turismoa egiteko bideak egokitzea proposatzen da.

Lanbide tradizionalak errespetatzeko beharra ere aipatzen da, Birjinosteko saskigintza tradizionala, adibidez.

Udalerriko jarduera industrialari dagokionez, **herritik kanpora lekualdatzea planteatu da**, horrek trafikoa murriztuko duela ulertuta. Era berean, Durangon **jarduera ekonomiko mota handitzeko industrialde bat sortzea proposatu da.**

En cuanto a la actividad económica se plantea la necesidad de impulsar el desarrollo comercial de Durango apoyándose en la adecuación urbanística. Se plantea que la soberanía alimentaria debería ser una cuestión a tener en cuenta, así como la necesidad de fortalecer y construir puentes entre agricultores y ciudadanos. Esto podría vincularse con la necesidad de impulsar la plaza del mercado para que ejerza como motor económico en Durango.

En cuanto a la tipología de actividades económicas, se plantea que se debería incentivar las iniciativas comerciales que tienen en cuenta el medio ambiente, así como apoyar al sector servicios y continuar con las campañas de promoción de lo local evitando el camino a grandes superficies.

Otra de las líneas de trabajo propuestas es que Durango esté mejor desarrollada turísticamente, en este sentido se propone adecuar caminos y senderos para la práctica deportiva y turismo.

También se menciona la necesidad de respetar los oficios tradicionales, se menciona como ejemplo la cestería tradicional en Birjinoste.

En cuanto a la actividad industrial del municipio, se plantea la necesidad de su desplazamiento fuera del pueblo entendiendo que esto reducirá el tráfico, y se propone la creación de un polígono industrial para ampliar el tipo de actividad económica en Durango.

# EKIPAMENDU ETA ZUZKIDURA PUBLIKOAK

## EQUIPAMIENTOS Y DOTACIONES PÚBLICAS

Ekipamenduei dagokienez, **udalerriko hainbat espazio birgaitzea proposatzen da**, hala nola Pinondo, frontoia (iruzkinak Ezkurdiko pilotalekuari egiten diola erreferentzia interpretatzen da) edo Ospitalea (iruzkinak ospitale zaharrari egiten diola erreferentzia interpretatzen da). Modu berean, **eskaintza zabaltzea ere** proposatzen da, San Fauston gizarte-etxe bat zabalduz, futbol-zelai berri bat eraikiz eta autokarabana-eremu bat jarritz.


Zuzkidurei dagokienez, **parke, berdegune eta zuhaitzi berriak sortzea proposatzen da**. Zentzu horretan, trenbidearen espazioa berdegune handi bat sortzeko toki egokia izan daitekeela adierazten da.

**Parkeak banku, iturri eta zabuekin hobetzeko eta hornitzeko beharra** ere antzeman da. Zentzu horretan, Mikelarra aipatzen da (iruzkinak Mikeldiko orubeari egiten diola erreferentzia interpretatzen da).

En cuanto a los equipamientos, se propone la rehabilitación de diferentes espacios del municipio como Pinondo, el frontón (se interpreta que el comentario hace referencia al frontón de Ezkurdi) o el Hospital (se interpreta que el comentario hace referencia al antiguo hospital), así como ampliar la oferta con un centro cívico en San Fausto, un nuevo campo de fútbol y un área de autocaravanas.

En cuanto a las dotaciones, se propone la creación de nuevos parques y zonas verdes y arboladas. En este sentido se indica que el espacio del ferrocarril podría ser el lugar para crear un gran espacio verde.

Se detecta también la necesidad de mejorar y dotar los parques existentes con bancos, fuentes y columpios. Se menciona en este sentido Mikelarra (se interpreta que el comentario hace referencia al solar de Mikeldi).



# PARTE-HARTZEKO MEKANISMOAK MECANISMOS DE PARTICIPACIÓN

Parte hartzeko mekanismoei dagokienez, eskertzen da Durangoko pertsonak parte hartzea, baina, aldi berean, **agerian geratzen da zaila dela biztanleriaren sektore jakin batzuetara heltzea kanal digitalak erabiliz**. Adineko pertsonari buruz ari gara, adibidez. Hori dela eta, beste bide osagarri batzuk ere erabiltzea proposatzen da.

**Auzoetako foroak sortzeko nahia ere adierazi da**, eta informazio-oinarri on bat izateko premia, galdetegian planteatzen diren gaien inguruko ekarpen aberatsagoak egin ahal izateko.

Aipatutako beste erronka bat **termino jakin batzuk behar bezala ulertzea eta adierazitako kontzeptu batzuek interpretazio desberdinak izan ditzaketela** konturatzea da. **Kanal digitalak aurrez aurreko foro edo topaketekin tartekatzea** proposatzen da, identifikatutako erronkei erantzuten laguntzeko.

En cuanto a los mecanismos de participación, se agradece que se haga partícipe a las personas de Durango pero a la vez se evidencia la dificultad que los canales digitales para determinados sectores de la población como las personas mayores por lo que se propone compatibilizarlo con otras vías complementarias.

Se propone también la creación de foros barriales y la necesidad de tener una buena base de información que posibilite aportaciones que sean más ricas en cuanto a los aspectos sobre los que se pregunta en el cuestionario.

Otro de los retos señalados es la adecuada comprensión de determinados términos o la diversidad de interpretaciones que pueden tener algunos de los conceptos señalados. Se propone compatibilizar los canales digitales con foros o encuentros presenciales que ayuden a dar respuesta a los retos identificados.





# BESTELAKOAK OTROS

Durangok **koherenteagoa izan beharko lukeela adierazi da, eta ikuspegi feminista, plurala eta kulturala bermatu behar** duela.

Halaber, trenbide zaharretako lurak birkalifikatzea proposatzen da, Aldundiarenak izateari utz diezaioten (adierazi behar da kasu honetan zuzena Eusko Jaurlaritza aipatzea izango litzatekeela).

Musiko Altuna, Matxinestarta eta Untzillatx kaleen arteko bidegurutzea hobetzea proposatzen da.

Joko-aretoak desagertu daitezkeen eskatzen da. (Aipatzekoa da joko-aretoak ezartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela. Hala ere, HAPOk mugak jar ditzake ezarpenari dagokionez).

Arkupeak garbitzea eta txakurrekiko bizikidetzaren dira aipatutako beste gaietako batzuk.

Se indica que Durango debiera ser más coherente y que debe garantizar una visión feminista, plural y cultural. También se propone recalificar los terrenos de las antiguas vías del tren para que dejen de pertenecer a la Diputación (cabe señalar que lo correcto en este caso sería hacer referencia a Gobierno Vasco).

Se propone mejorar el cruce de las calles Musiko Altuna con Matxinestarta y Untzillatx.

Se propone la desaparición de los salones de juego. (Cabe señalar que la implantación de salones de juego es una competencia de Gobierno Vasco. Si bien el PGOU podría determinar establecer limitaciones en relación a su implantación).

La limpieza de los soportales y la convivencia con los perros es otra de las cuestiones señaladas.



# ALDE ZAHARRA CASCO VIEJO

Alde zaharrari dagokionez, **zaharkitutako eraikinak berritu eta erabiltzeko beharra** planteatu da, baita **Santa Ana eta Udaletxeko plazei bizia emateko beharra** ere.

Bestalde, badaude HAPOn eraginik ez duten beste kontu batzuk ere, hala nola kalea berritzea patinatzen ez duen lurzorua erabiliz, garbiketa areagotzea eta edukiontziak hobeto kudeatzea. Horrez gain, astegunetan tabernen ordutegia birpentsatzea eskatu da, baita terrazetarako espazioa murriztea ere.

Para el casco viejo se plantea la necesidad de renovar y darle uso a edificios obsoletos, así como la necesidad de darle vida a las plazas de Santa Ana y la del Ayuntamiento.

Otras cuestiones que no inciden en el PGOU sería la renovación de la calle utilizando un suelo que no patine, aumentar la limpieza y una mejor gestión de los contenedores. También se plantea valorar el horario de los bares entre semana, así como la reducción del espacio destinado a terrazas.



# ZENTROA CENTRO

**Kaleak oinezkoentzat izatea eta landa-eremu bat sortzea planteatzen da, hutsik dauden orubeak aprobetxatuz, zuhaitzak landatuz eta haurrentzako espazio bat sortuz. Halaber, bidegorrien sarea eta ikastetxeetarako sarbideak eta irisgarritasuna hobetu behar dira.**

**Antzinako trenbideen gunea parke bat sortzeko espazio gisa** proposatzen da, edo, beste barik, herritarrek goza dezaketen espazio gisa gaur egungo mugak eraistean.

Autoz egindako mugikortasunari dagokionez, **aparkalekua arazo bat dela adierazten da.** Oinezkoentzako pasabideak kentzea ere proposatzen da, autoz doazenen osasunean duten eraginagatik.


Beste alde batetik, ikastetxeetatik gertu egin daitezkeen jarduerak arautzea ere eskatzen da, irristakorrak ez diren lurzoruetan akaberak erabiltzea eta hondakinen kudeaketa hobetzea.

Se plantea una peatonalización de calles y la creación de un espacio rural aprovechando solares vacíos y la plantación de árboles y la creación de una dotación para niños. También la necesidad de trabajar la red de bidegorris así como la accesibilidad y accesos a los colegios.

Se propone el espacio de las antiguas vías del tren como un espacio para la creación de un parque, o la posibilidad de disfrutar de este espacio al derribar las delimitaciones actuales.

En cuanto a la movilidad en coche, se indica que el aparcamiento es un problema. También se propone la eliminación de los pasos de peatones por sus efectos en la salud de quienes van en coche.

Regular el tipo de actividades que se pueden desarrollar en las cercanías de los colegios, utilizar acabados en suelos que no sean resbaladizos o la mejora de la gestión de residuos son otros de los aspectos mencionados.



# SAN ROKE-ARAMOTZ

**Kutsaduraren hainbat alderdik kezka sortzen dute, hala nola airearen eta zarataren kalitateak, bai eta bizitegi-erabileren eta auzoko jarduera ekonomiko industrialaren arteko bateragarritasunak ere** (iruzkinak BRUSS eta Funbarri aipatzen dituela interpretatzen da). Horiek beste kokapen batera lekualdatzea eta errepidea hobetzea eskatzen da (iruzkinak Sasikoa eta lurreta arteko loturari egiten diola erreferentzia interpretatzen da).

Autoz egindako mugikortasunari dagokionez, **aparkatzeko zailtasunak** daudela adierazi da, eta, beraz, ibilgailuak aparkatzeko guneak zabaltzea eta TAO gune izatea eskatu da. Salabarritik Café Baquéra doan bidea hobetzeko nahia ere adierazi da (iruzkinak Sasikoari egiten diola erreferentzia interpretatzen da).

Bestalde, inguruan **autoen erabilera murriztea eta auzoan eskola-bideak hobetzea proposatzen da.**

Era berean, **auzotarrak auzoan elkartu ahal izateko egitura bat** behar dela adierazi da. Bustintza-Ziortzan (iruzkinak Ziritzari egiten diola erreferentzia interpretatzen da) parkeko argiztapena hobetzea eta beste hobekuntza txiki batzuk egitea eskatu da. Astepen ere zebrabideetako argiztapena hobetzeko nahia adierazi dute. Bestalde, mahaigaineratu da hiltegi zaharreko parkean kontuan hartu beharko dela txakurren eta bizilagunen arteko bizikidetzak. Horrez gain, auzokoek bertako elikagaiak eskuratu ahal izateko aukeraz ere hitz egin da.

Preocupan diversos aspectos de

contaminación como la calidad del aire y ruido, así como la compatibilización de usos entre residencial y la actividad económica industrial del barrio (se interpreta que el comentario hace referencia a BRUSS y Funbarri), proponiendo el traslado de las mismas a una ubicación diferente así como la mejora de la carretera (se interpreta que el comentario hace referencia a la conexión entre Sasikoa y lurreta).

En cuanto a la movilidad en coche, se indica que hay dificultades para el aparcamiento, se solicita ampliar zonas para el aparcamiento de vehículos y ser zona OTA.

También mejorar el camino que va de Salabarra a Café Baqué (se interpreta que el comentario hace referencia a Sasikoa).

Por otro lado, se propone reducir el uso de los coches en la zona y favorecer los caminos escolares en el barrio.

Se indica la necesidad un equipamiento para el encuentro vecinal en el barrio. Se menciona la necesidad en Bustintza-Ziortza (se interpreta que el comentario hace referencia a Ziritza), otras pequeñas dotaciones para el parque y mejorar la iluminación. En Astepe también se solicita mejorar la iluminación de los pasos de cebra. También se señala que en el parque del antiguo matadero se deberá tener en cuenta la convivencia entre perros y vecinos, o el tener acceso a alimentos autóctonos.



# ZABALARRA-MIKELDI

Zabalarran eta Mikeldin ere, **airearen kutsadurak eta zaratak kezka sortzen du.**

En Zabalarra / Mikeldi también preocupa la contaminación del aire y por ruido.

Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, **espaloiak hobetzea eta handitzea** eskatzen da, baita aparkalekuak kenduz ere beharrezkoa bada.

En cuanto a la movilidad peatonal, se solicita mejorar las aceras y ampliarlas incluso eliminando aparcamiento.

**Bidegorriari jarraipena emateko beharra** ere adierazi da. **Espazio libreak ahalbidetzea proposatzen da, zuhaitz gehiago dituzten berdeguneak.** Espazio horietako bat San Inazio inguruko parkea izan daiteke, institutuaren aurrean dagoena. Beste aukera batzuk Kirolene ingurua eta Sasikoa kalea dira, azken horretan zabor-edukiontzia kendu direla aprobetxatuz.

También se indica la necesidad de dar continuidad al bidegorri. Se proponen espacios libres, zonas verdes con más arbolado. Hay una propuesta de que uno de estos espacios pueda ser en la zona del parque de San Ignacio, antes del instituto promoviendo su uso. Otra zona podría ser la zona de Kirolene o en la calle Sasikoa donde se han eliminado los contenedores.

**Haurrentzako eta adineko pertsonentzako guneak prestatzea** ere proposatzen da, baina ez dago argi ekipamendu bat edo auzoan zehar hainbat espazio libre izango liratekeen.

Se propone habilitar espacios para niños y gente mayor pero no queda claro si sería como un equipamiento o como dotaciones de espacios libres en el barrio.

Beste alde batetik, **bankuak, iturriak eta zabuak eskatzen dira** Mikelarra inguruan, baita haur-parke berriak, jolasguneak eta mahai borobilak ere, Tabirako ibaian daudenen antzerakoak (iruzkinak Mikeldiko orubeari egiten diola erreferentzia interpretatzen da).

Se solicitan pequeñas dotaciones como bancos, fuentes y columpios en la zona de Mikelarra nuevos parques infantiles, zona de juegos, mesas redondas al estilo de las del río Tabirako (se interpreta que el comentario hace referencia al solar de Mikeldi).

**TAOko orduetatik kanpo aparkatzeko arazoak** daudela ere aipatu da.

Se indican también problemas de aparcamiento fuera de las horas de OTA.



# MADALENA

Hainbat proposamen egin dira **Madalena basilizaren erabilera publikoa eta aisialdikoa sustatzeko**, eta baita basilizaren ingurunea hobetzeko ere.

Gainera, **jolaserako eta aisialdirako guneak proposatzen dira, ibaia igarotzen dela aprobetxatuz**, baita ibaian bainatu ahal izateko ere. Horretarako, garbitu egin behar dela planteatu da.

Hainbat proposamenek adierazten dute **trenbide zaharrei erabilera eman behar zaiela**.

Mugikortasunari dagokionez, **Fray Juan de Zumarraga oinezkoentzat izatea** eskatzen da (kalearen hasierari erreferentzia egiten zaiola ulertzen da). Autobus-geltokia hobetzeko beharra ere adierazten da.


*Telefónica*ko antena udalerriko erdigunetik kentzea, txakurren eta herritarren arteko elkarbizitza bateragarri egitea eta merkataritza sustatzea dira aipatutako beste gai batzuk.

Varias son las propuestas para potenciar el uso público y de ocio de la Ermita de Madalena, y de la necesidad de mejorar el entorno de la misma.

Se proponen zonas lúdicas y de esparcimiento aprovechando el paso del río, incluso para poder bañarse en el río. Para esto se plantea la necesidad de limpiarlo. Varias son las propuestas que señalan la necesidad de dar uso a la zona de las antiguas vías del tren.

En cuanto a la movilidad, se propone la peatonalización de Fray Juan de Zumarraga (se interpreta que el comentario hace referencia al primer tramo) y mejorar la estación de autobuses.

Retirar la antena de Telefónica del centro del municipio, la compatibilización de usos con relación a los perros y el fomento del comercio son otras de las cuestiones mencionadas.



# LANDAKO

**Aipatutako alderdi asko auzoko mugikortasunarekin lotuta daude.** Zamalanetarako lekuak berrikustea eta hobetzea, aparkaleku-arazoak eta TAO eremua motordun mugikortasunari buruzkoak dira.


Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, aparkaleku gehiago behar direla adierazi da eta trenbide zaharren lursailean bidegorri bat txertatzea proposatu da.

**Etxebizitzen prezioak ere kezka sortzen du,** baita txakurrekiko bizikidetzak ere.

Muchos de los aspectos señalados tienen que ver con la movilidad en el barrio. Revisar y mejorar los lugares de carga y descarga, los problemas de aparcamiento y la zona de OTA son los relativos a la movilidad motorizada.

En cuanto a la movilidad en bicicleta, se indica que se necesitan más aparcabicis y se propone que en el terreno de las antiguas vías del tren se inserte un bidegorri.

Preocupa también el precio de las viviendas, así como la convivencia con los perros.



# SAN FAUSTO

Auzoan **harreman sozialak bultzatzeko jolasgune bakarra sortzea** proposatzen da.

San Faustoko etxe zaharrak hobeto ikusiko lirateke. Bestalde, baserri berrietan lonja gehiago egon beharko lirateke. Auzoaren alde berrian ez dago bat bera ere (iruzkinak **Kapitanena baserriaren barnaldean egokitzeko beharrari** egiten diola erreferentzia interpretatzen da, auzoan erabili ahal izateko). Garbitasuna da aipatutako beste gaietako bat.

Se propone crear un único espacio de juego para favorecer las relaciones sociales en el barrio.

Las viejas casas de San fausto se verían mejor. Por otra parte, en los nuevos caseríos debería haber más lonjas. En la parte nueva del barrio no hay ninguna (se interpreta que el comentario hace referencia a la necesidad de realizar el acondicionamiento interior del caserío Kapitanena para su utilización para el barrio). La limpieza es otra de las cuestiones señaladas.





# TABIRA

Gutxienez asteburuetan **kalea oinezkoentzat izatea** proposatzen da, bai eta berdeguneak mantentzea eta handitzea ere (iruzkinak **Tabirabideri egiten diola erreferentzia interpretatzen da**).

**Industriaguneak birgaitzeko eta egungo industriaren isuriak kontrolatzeko beharra ere aipatu da.**

TAO ezartzea ere proposatu da.

Se propone peatonalizar la calle al menos los fines de semana, así como el mantenimiento y aumento de zonas verdes (se interpreta que el comentario hace referencia a Tabirabide).

La rehabilitación de espacios industriales y el control de las emisiones de la industria existente son otras de las cuestiones señaladas.

También se propone que se implante la OTA.

**ESKERRIK ASKO PARTE HARTU  
DUZUNOI**

**GRACIAS A LAS PERSONAS  
QUE HABÉIS PARTICIPADO**